

Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)

EDU ZELAIETA*

ADITZAREN MORFOLOGIA¹

1. **Etorkizuneko atzizkia:** aditz gehienekin *-ko* erabiltzen da, *-n-z* eta *-l-z* bukatutakoekin izan ezik. Horiekin *-en* atzizkia baliatzen da (*(i)zanen, egonen, yanen, erranen...* Gure datuen arabera, Sunbillatik beheiti *-nen>-in* berrikuntza hasten da: *errain, izain, yain...* Hortaz, Goizuetan, Sunbillan, Bertizaranan, Baztanen, Zugarramurdin, Urdazubin, Saran, Senperen, Larresoron (Epelde 2004: 291-292)... gertatu da berrikuntza; inguru guzian. Bortzerrietan, ordea, jatorrizkoa gorde da. Honetan bat heldu dira azter-eremuko bortz herriak.
2. **Partizipio analogikoak:** Bortzerrietan, Euskal Herriko erdigune zabal batean bezala², partizipio analogiko batzuk nagusitu dira: (*(i)zandu, egondu* eta *bizittu*. Saran (eta Ipar Euskal Herrian), berriz, bertze hauek bildu ditugu: *izatu³, egotu, bizitu, botatu* eta *ateatu*. Baztanen ez dago honelakorik.

* Euskal Herriko Unibertsitatea.

¹ Lan honen lehenbiziko atala *FLV* 96an agertu zen. Bi artikuluok Eusko Jaurlaritzak finantzaturako *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* izeneko tesi-proiektuaren barrenean kokatzen dira. Bertze alde, eskerrak eman nahi dizkiegu lanari oharrak egin dizkioten hurrengo lagunei: Gotzon Aurrekoetxea, Patxi Iñigo, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri Zaratiegi, Mikel Taberna, Koldo Zuazo, eta bereziki, tesiaren zuzendaria dugun Iñaki Caminori.

² Ultzama osora hedatu dira mota honetako partizipioak (Ibarra 1995: 543). Halaber, (Salaberri 2002: 37) Iruñerriako testuetan ere ageri da.

³ Erraterako, Etxeberri Sarakoak hala erabiltzen zuen bere idatzietan. Halaber, Pagolaren lanean (1984: 25), Sarako transkribaketan ageri da: *suerte aundia izatu ginuen*. Bai eta erruz agertu ere Senpereko kantuetan (*Senpereko kantu xabarrak* 2001).

3. **Partizipioa:** euskarak partizipioa egiteko ezagun dituen hiru aukerak dokumentatuak dira Bortzerrietako testuetan, eta idazkiotan *-rik* atzizkia da maizen duguna partizipioa eraikitzeke tenorean, *-a* ere batzuetan ageri da eta gutien erabiltzen den *-ta* atzizkia *egon*⁴ aditzaren inguruan azaltzen da beti. Gaur den egunean, berriz, lehengoan nagusi zen *-rik* gutitan aditzen da; *-ta egon* aditzaren inguruan agertzen ohi da *yarrita, etzinta... egon*, eta nabarmen gailentzen dena *-a* atzizkia da. Zinez, partizipioa egiteko aukerak nabarmen aldatu dira, eta erran liteke Euskal Herriko erdialdera begira gertatu direla aldatok, nahiz eta Baztanen ere *-a* duten egiturak nagusitu diren.
4. **Aditz izenetako *-iten*:** gertakari honen hedaduraz, Koldo Zuazoren aipamen bat ekarriko dugu gurera (1998b: 9):

Atxemaiten, igaiten, iasaiten, ioaiten, ioiten, ukhaiten. Ipar Euskal gehiengan –Lapurdikoko hegomendebala da salbuespena– eta Erronkarin gorde da partizipioa *-n* edo *-o* batez amaitu ohi denean. Basaburu Tiki gehiengan –Aranon eta Areson ez bestetan– hiru aditzetan agertzen da: *eamatten* (<eramaiten), *egotten* (<egoiten) eta *ematten* (<emaiten). Hiru horietaz gainera, *erratten, izatten* ere badira Bortzerrietan.

Guk irakasle eibartarrak aipatzen dituen bortzez gain, (*isaiten*⁵>) *isatten* eta (*igaiten*>) *igatten* ere (Etxalarren busti gabe) kausitu ditugu. Hondarreko hau Berako dotrinan ere bildu dugu. Edozein modutan, ezaugarri hau gibelka ari da zenbait gazteren artean, eta ondorioz, bustidurarik gabeko forma bizkortzen ari da solasean.

5. ***inta, errantako modukoak*:** kontsonante sudurkarian bukatzen diren partizipioei ahostundu gabeko *-ta* atzizkia eransten zaie Bortzerrietako hizkeran *inta, yakinta, erranta, manta...* Bai eta erlatiboazko bertze hauek ere *intako kaltik, errantakua, mantako gauza guziyak...* Donostiatik eskuin dauden herrietan agertzen ahal da (Camino 2000b: 72). Halaber, Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen, Zugarramurdi eta Saran. Halarik ere, hizkera nafarrota *manta, yakinta...* erraten bada ere, erlatiboaz egiteko tenorean ahostuna baliatzen da: *mandako, indako mandatuak...* Eta Saran, aldiz, Bortzerrietan bezalaxe egiten da, beti ahostundu gabe.
6. ***-ki aditz atzizkia*:** ezaguna da Bortzerrietan eta inguru guzian erabiltzen dela *-ki* aditz atzizkia. Baina bada bertze isoglosa interesgarriago bat Bortzerrietan barrena (Iñigo et alii 1995: 285):

Bortzerrietan Bera eta Etxalar dira puntukaritasuna adierazteko *-ki* aditz-atzizkia erabiltzen duten herri bakarrak; honelako adizkiak aurkitzen ditugu hemen: *joaki naiz/joaki nintzen, ibilki naiz/ibilki nintzen, eramaki dut/eramaki nuen, ekarki dut/ekarki nuen.*

Honenbertzez, Bera eta Etxalar ditugu (berriz ere) alde batera, eta Arantza, Igantzi eta Lesaka bertzera. Kontu hau ezaguna da bortzerri-

⁴ N^oDiayek Amairuko euskarari buruz ematen duen azalpena hagitz egokia iduritzen zaigu Bortzerrietako euskararako (1970: 82-83): “Le syntagme en *-ta* est très fréquent avec le verbe *egon*, marquant un état qui succede a une action *urean etzanta zagon, bein iarrite etziren xutitzen al ere*”.

⁵ Ez nahasi *izan* aditzarekin, *isan* ‘eutsi, mantendu’ baita.

tarren artean. Erraterako, Lesakan ongixko dakite *yuaki naiz* hori be-
ratarra dela. Afera honetan, Bera eta Etxalar Zugarramurdi-Urdazu-
bitik nahiz Ipar Euskal Herritik hurbilago ditugu. Irun-Hondarribian
ere baliatzen da (Sagarzazu 2003: 25-26).

7. **-katu atzizkia:** Bortzerrietan maiz samar erabiltzen den ezaugarria du-
gu *guri ilkatu zaizkigu aunitz bedere; guri inkatu zaizkigu; lenuo aitu-
katu gara gu ardo pixko bat maiten* (Etxalarko adibideak). Honako
aditzen erranahia edo zentzua ohiturazkoa da ‘hil izan zaizkigu’; ‘egin
izan zaizkigu’... Baina, Zubirik (2000: 102) Goizuetarako erraten di-
gunez, horrelakoek badute bertze adiera bat *nik aingira yankatu dut*
‘nik behin jan izan dut aingira’, zeren eta honelako egiturak ere ani-
tzetan aditzen dira *noizpattere errankatu zattut; noizpattere arittukatu
gattuk orren gain* (Berako etsenpluak)... Agerian dagoenez, *noizbait
(ere)* denborazko adberbioarekin agertzen da. Bortzerrietan *-katu* gai-
lentzen bada ere, *-ketu* ere ez da arrotza. *-ketu* da hain zuzen ere Hon-
darribian erabiltzen dena. Malerrekan *-katu* bildu dugu guk, Bortze-
rrietan baino gutiago erabiltzen bada ere. Baztanen eta Saran ez da
ezaguna; ezta Basaburu Tikiko bertze herrietan ere.
8. **Aditza+gogo ‘asmoa izan’:** egitura hau adin batetik goitikoan artean
aditzen da batez ere, gazte zenbaitzuek nekez ulertuko bailukete *nik
yuango nun eben eske, miño kotxia izortu zait* ‘nik joan gogo nuen be-
ren bila, baina kotxea izorratu zait’; *noiz akautu bar duk egur itten* eta
erantzuna *gaur akautu gogo dit* ‘noiz bukatu behar duk egur egiten’
‘gaur bukatu gogo diat/gaur bukatzeko asmoa diat’. Ez du iduri egi-
tura hau mendebalera ezaguna denik (Goizuetan, Oiartzunen...); bai,
ordea, Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen eta Ipar Euskal Herrian.
9. **aditza+alde** egitura: ezaugarri hau, hondarreko biak bezala, heldu eta
zaharren artean sumatzen da nagusiki *lan ori eiñ alde manen dizute so-
sa* ‘lan hori egiteagatik/egitearen truke emanen dizute sosa’; *ama zai-
tze alde banun soldadokua ez itteko aukera* ‘ama zaintzearen
truke/zaintzeagatik, banuen soldaduska ez egiteko aukera’. Badakigu
egitura hau Gipuzkoan eta Lapurdin ez dela ezaguna, baina ez daki-
gu noraino iristen den Nafarroan barrena.
10. **Txistukaria + -i edo -tu bukaera duten bi silabako aditzak:** aditz
hauek inesiboko nahiz xedezko atzizkiak hartzean honako emaitzak
izaten ditugu: *yauntzitzeko(z)/yauntzitzen, utzitzeko/utzitzen, moztu-
tzeko/moztutzen, sartutzeko/sartutzen* e.a. Erran beharra dugu *-tu* bu-
kaera duten aditzek Euskal Herri gehiengan bezala ere jokatzeko ahal
dutela: *sartzen/sartzeko, mozten/mozteko*... Gertakari hau ia Donostia-
raino ailegatzen da (Camino 2000b: 73). Malerrekan ere ezaguna da.
Saran eta Baztanen, ordea, ez.
11. **Partzipio burutu gabea duten egitura perifrastikoak:** iduri du eus-
kara nafarrean eta Ipar Euskal Herrian gero eta gutiago erabiltzen di-
rela ahalezko adizki trinkoak. Bortzerrietako testuetan adizki trinko-
ak nonahi agertzen diren bitartean, gaur egunean ia ez da batere era-
biltzen. Erran bezala, eremu handi samarra hartzen du kontu honek,
baina Bortzerrietan bereziki arrunt galduak dira jatorrizko adizkiak
(Gaminde 1985: 220):

Amaiur, Igantzi, Etxalar, Bera, Lesaka eta Arantzan ez ziren adizki hauek agertu [nor-en ahalezko adizkiez ari da], *ahal izan* aditzaz baliatzen ziren beti, adibidez:

- (Igantzi) *ibiltzen al naiz emen.*
- (Bera) *mendirat yoaten al gattun.*

Guk singularreko 3. pertsonako adizkia bakarrik aurkitu dugu: (*i*)*zan tteke* 'balitekei (maiz aski), *ez tatteke ori yan* (Bera), *izan ttezke oiek* (Igantzi). Eta bitan Etxalarren Baztanen baliatzen den *daike* adizkia jaso dugu: *aundiya eztaike ibiltzen al maldin* eta *eztaike gatzik man areri*. Honenbertzez, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hizkerekin bat egiten du gureak, baina ikusi dugunez, ahalezko adizkiak Bortzerrietan bereziki galduak dira⁶.

12. ***edun-en iraganeko adizkiak**: singularreko bigarren pertsonari eta pluraleko lehen pertsonari dagozkien adizkietan honako forma hauek atzeman ditugu guk: *zenun/ziñun/zunun/zuñun* eta *genun/giñun/gunun/guñun/(ge)nugun*. Dena den, denek ez dute eremu eta maiztasun bera. Nolabait sailkatzeagatik, erran dezagun *zuñun* eta *guñun* Beran bakarrik bildu ditugula eta aski bakan, gainera. Eta bertzeak herri guzietan, *zenun* eta *genun* nagusiago ageri direlarik oro har. Diakroniari dagokionez, Berako dotrinan *zunuben* eta *genuben* kausitu ditugu eta Lesakan *zanuben* eta *ganuben*. Honetaz gainera, bada analogia fenomeno bat sobera hedatua ez dena, baina bertako adineko batzuei antzeman dieguna: *in nugun* 'egin genuen' (Igantzi), *gauzek eraun nitugun errana ziguten tokirat* 'gauza haiek eraman genituen errana ziguten tokirat' (Etxalar), *guk banugun olko bat* 'guk bagenuen horrelako bat' (Lesaka)... Guk, Nafarroan, Bortzerrietan bakarrik aditu dugu. Halarik ere, Txomin Sagarzazuk dioskunez, Irun-Hondarribian ere badira analogiaz sortutako honelako adizki berriak, bereziki, Hondarribiko portu aldean (Sagarzazu 2003: 21).
13. **izan-en orainaldiko -a- erroa**: *zara, gara, zate* dira aukera nagusiak. Alabaina, *zera* eta *gera* formak ere ezagunak dira gure esparruan eta inguruan⁷.
14. **Iraganeko adizkietako -a-**: *zagon, zauden/zaudezin, zabilen, zabil-tzan, naki(e)n, zaki(e)n* bezalakoak nagusitzen dira. Testuetan gaur guk bildu ez ditugun *zaucan* eta *zaucaten* ere ageri dira. Hortaz, Gipuzkoako eremu batzuetako, ekialdeko eta iparraldeko hizkeretan bezala⁸.
15. **Adizkien singularreko bigarren pertsona y-**: Nafarroa gehiengan erabiltzen den ezaugarri hau sistematikoki ageri da Bortzerrietako euskararen *yaiz, yitzen, yaut, yaugu*... Gertakari hau Errenteriaraino ailegatzen bide da (Camino 2000b: 73). Saran, Zugarramurdin eta Urdaubain ez dago berrikuntza hau, eta Baztangoizan iduri du gazteen artean sartzen hasia dela.

⁶ Paskual Rekaldek egindako oharren arabera, Baztangoizan (eta partikularki adinekoen artean) *dai(te)ke, dai(te)zke, dezake* bizi-bizirik daude. Gazteagoen artean, aldiz, perifrastikoak nagusi dira.

⁷ Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan ere ezagunak dira (Zuazo 1998b: 8).

⁸ Areson ere erabiltzen dira gisa honetakoak (Olano 1998: 224).

16. **Adizki laguntzaileetako *de-* eta *di-* atalaren galera:** *battut, ttuzte, in tzala, man tzagun* eta abar. Berrikuntza hau Bortzerrietan ez ezik, inguruko hizkeretan ere arrunt hedatu da⁹, bai eta Lezo eta Erreteriaraino ere (Camino 2000b: 75). Berriki, Henri Duhauk argitara eman duen lanean ere nonahi ageri dira honelakoak (2003: 242): *enplegatu dituzka denak? [enplaatu tu(z)ka], bi anpulkan erreak dituk [bi anpulkan errik tuk], paperak erreak ditik han [paperak errik tik han]*. Hortaz, Lapurdin aski ohikoa bide da. Baita Koldo Zuazok ohartarazi gaituenez, Eibarren berean ere.
17. **N-N-N saileko *-it-* pluralgilea:** arras hedatua da gurean gertakari analogiko hau *ttio, ttigu, zittigun, zittiozten...* Euskara nafar gehieneko bereizgarria da, Baztanen (Oronozen izan ezik) ahula bada ere. Dena den, Bortzerrietan hiketako adizkietan jatorrizko *-zki-* pluralgilea ere erabiltzea suertatzen da¹⁰.
18. **N-N eta N-N-N sailen arteko bereizketa:** gaur egunean badakigu Euskal Herriko toki anitzetan, eta euskara nafar gehienean (Ibarra 1995: 428-429, Erdozia 2001: 261-263), N-N saileko adizkien ordez N-N-N sailekoak erabili ohi direla. Bortzerrietako euskararen hau gertatzea ez da arrotza, batez ere adin jakin batetik beheitikoen artean *itxera(t) eramiñen (di)zut* ‘etxera eramanen zaitut’, *orrek ez dia salutu nai* ‘horrek ez dit salutatu nahi’, *atzo ikus nizun* ‘atzo ikusi zintudan’¹¹... Haatik, Bortzerrietan Nor-Nork saileko adizkiak ez dira galdu inondik ere. Izan ere, adizki jatorrak ere maiz aski aditzen dira *goiz in kus gattuzte, xetuko yaut, itxez ganbitu giñuzten*¹²... Areago, zenbaitetan N-N-N erabili beharko litzatekeen tokian N-N erabiltzen da *noizpattere errankatu zattut, kotxe bat erosko zattut, multa bat paratu zattuzte, ez gattuzte deus ere man* e.a. Larramendik Donostiako euskarari buruz aipatu zuen solezismoa nahiz Bonapartek kostaldeko ezaugarritzat hartuta deitutako *idiotisme marin* delakoa gurean ere gertatzen da. Fenomeno hau (Fernandez 2001; Irizar 1981: 359; Sagarzazu 1994: 609-610; Zuazo 1997), Lapurdiko hego-mendebaldean, Zugarramurdi, Urdazubin, Baztanen, Bertizaranan, Malerrekan, Bortzerrietan, Hondarribian, Irunen, Oiartzunen, Donostian eta Bizkaiko itsasaldean ere bada. Hortaz, Bortzerrietan gertatzen dena eremu horren barrenean sartzen ahal dugu.
19. **N-N-N saileko hirugarren pertsona:** Bortzerrietako euskararen N-N-N saileko *nori* kasuko singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonak ez dira morfologiaz bereizten, batak zein bertzeak *-o-* artizki bakarria hartzen dutelako *giltzak man nittion* ‘giltzak eman nizkion’ nahiz ‘giltzak

⁹ Errate baterako, Mariano Izeta zenak horrelakoak erabiltzen zituen bere lanetan (1996, 1999) eta Irizarrek ere, gehienbat, halakoxeak agertzen ditu Baztango aditz tauletan (1997: 551-614).

¹⁰ Irizarrek (1992: 454) Arantzarako *dizkiñet* dakar, eta Arantzarako nahiz Berarako *dizkik*.

¹¹ Mikel Tabernak kontatutako anekdota: “oroitzen nauk behin aitarekin ostatu batean pintxo bat eskatu, eta zerbitzariak begietara begiraturik nola erran zidan «berotuko zattut». Gerokoak ez kontatzea hobe” [bere aitak argi eta garbi bereizten baitzuen bi sailon artean].

¹² Adibide hau Lesakako emakume heldu bati grabatua da. Kontua da gauza bera adierazteko hirur adizki aurkitu ditugula guk Bortzerrietan: *gattuzten* (analogikoa), *ziguten* (nahasia) eta *giñuzten* (jatorra).

eman nizkien' izan liteke. Hau arrunt sistematikoa da eta Bortzerrietako testuetan ere salbuespenik gabe ageri zaigu: *norq emanen ttio gaur nere ezpañey itzaq?*; *emaztiaq even senarrey izan biar dioten sugeciyyua* (Lesaka). Guk dakigula, Malerrekan eta Bertizaranan¹³ ere gertakari bera suertatzen da.

20. **Iraganeko adizkiak:** honi dagokionez ere, adizki berriak gailendu dira arruntean, Nor-Nori saileko iraganeko adizkiak orainaldikoen gainean eraikitzen baitira: orainaldiko adizkia + *-(e)n z(a)iten, z(a)izun, z(a)ion, z(a)izuen eta z(a)ioten*. Inguruko hizkera nafarretan ere hala-ko egoera dago, nahiz eta guk Bertizaranan egindako grabazio bazu-*zuetan zitzaion eta zitzaigun* bezalakoak azaltzen diren (betiere, adineko eta bertako jendeaz ari gara). Orobat, iraganeko adizki trinkorik gehienak honelaxe eraten dira: *banuyen* 'banindoan', *bazuzin* 'bazindoazen'...; *nagon, zauden...*; *nabillen, zabiltzan...* eta abar. Pasaian ere arrunta da berrikuntza hau (Agirretxe & Lersundi & Olaetxea 2000: 101):

Adizki trinkoetan nahiko orokorra den gertaera bat aipatu nahi dugu: lehenaldiko formak egiteko orainaldiko formari "n" eranstejo joera.

21. **Joan aditza:** lehenago erran bezala, Beran eta Etxalarren aukera bi-koitza dugun bitartean: *yuaki naiz/banu(a)ye, yuaki zara/bazu(a)zi...*; Arantzan, Igantzin eta Lesakan aukera bakarra dago: *banuye, baguye, bazuzi, baduye, baguzi, bazuzte eta baduzi*. Honelako adizkiak Nafarroan barrena erabiltzen direla badakigu, baina Bertizaranatik ekialdera talde honen soilteza ezberdin suertatu da: Bortzerrietan Malerrekan eta Bertizaranan *noaye > nuye* modukoak, Baztanen, Esteribar-Erroibarren... *noaye > naye* eta *nae* modukoak¹⁴. Honenbertzez, Nafarroan barreneko isoglosa dugu honako hau. Gipuzkoan eta Goizuetan, aldiz, bertze era bateko adizkiak ditugu.
22. **Egon aditza:** Bortzerrietan aukera bat baino gehiago dago, guk honako hauek bildu ditugu: *nago, zaudel/zaudezi/za(g)oz, dago, gaudel/gaudezi/ga(g)oz, zaudete, daudel/daudezi/da(g)oz*. Bai eta Arantzan bakarrik eman dizkiguten bertzeok ere: *zabezi, gabezi, dabezi, zaudezi-gaudezi-daudezi* adizkiak Malerrekan ere ohikoak dira. Zugarramurdi eta Baztanen, aldiz, *zautzi, gautzi, dautzi* bezalako adizkiak eman dizkigute, bereziki helduek eta adinekoek erabiltzen dituztela erranez. Dena den, Baztango Basaburuan *za(g)oz, ga(g)oz, da(g)oz* formak erabiltzen bide dira. Bortzerrietatik mendebalera badugu Pasaiaiko lekukotasuna (Agirretxe & Lersundi & Olaetxea 2000: 107, 152) *saudes* 'zaude' *gaudes* 'gaude' orainaldian; eta *saudesen* 'zeuden' *gaudesen* 'geunden' iraganean, eta Irun-Hondarribikoa (Sagarzazu 2003: 25) *dagoste, gaudes*.

¹³ Halarik ere, Bertizaranako idazkietan ez da Bortzerrietakoetan bezain ugari ageri; nahiz eta gaur den egunean arras nagusitu den. Beraz, pentsatzekoa da berrikuntza hau Bortzerrietan lehenago zabaldu zela, eta hortik Bertizaranara.

¹⁴ Ultzameraren eremuan biak erabiltzen dira (Ibarra 1995: 476-478): *nuayel/naye, duayel/daye*.

23. **Ibili aditza:** nafarrera gehiengan bezala (Erdozia 2001: 275; Ibarra 1995: 475; Ibarra 2000: 185), singularreko adizkiek bokal bat erama-ki dute: *nabilla, yabilla, dabilla*. Mendebalera ezabatzen hasten da: Goizuetan aukerakoa bide da (Zubiri & Perurena 1998: 142) eta Gipuzkoan nahiz Leitza ez dago (Olano 1998: 216). Lapurdin, berriz, *nabila* bezalakoak arauzkoak dira (Duhau 2003).
24. **izan/egon aditzen arteko lehia:** Orreaga Ibarrek Esteribarrerako zein Erroibarrerako dakarren azalpena hagitx hurbilekoa sumatzen dugu guk ere gure eremuan zer gertatzen den azaltzeko (2000: 199):

Gure eremuan izan-en adizkiak ugari dira, eta beste lekuetan egon da- goen tokietan agertzen zaizkigu. Hartaz, Eroibarko eta Esteribarko euska- ra lotuago agertzen da iparraldeko usadioarekin hegoaldekoarekin baino.

Hona hemen guk jasotako zenbait adibide: *konforme zera?, dena ilun tzen, gure ama zena eri zen, ongi naiz, ura re lotan tzen...* Bertze alde, Euskal Herriko toki anitzetan bezalaxe, Bortzerrietan ere *egon* aditzak zentzu estatikoagoa du. Erraterako, *Irunan izandu naiz* vs. *Irunan egondu naiz*. Lehenbizikoak Irunera zerbait egitera joan naize- la adieraziko luke, eta bigarrenak Irunen bizi izan naizela edo denbor- raldi batez bertan egon naizela.

25. ***edun/eduki aditzen arteko lehia:** kasu honetan lehiarik ere ez dago Bortzerrietan, egia erran. Izan ere, dena da *edun* aditza: *battut emen sos batzuk, zenbat telebisionen ttuzue itxin, etzun illerikan* ere e.a. Ingu- ruko hizkera gehientsuenetan ageri da, ordea: Gipuzkoan, Goizue- tan¹⁵, Baztanen... Guk aztergai izan dugun corpus guzian, behin ba- karririk erdietsi dugu adizki trinko bat eta gainera zuzenean galdetuta - espresuki bila joanda - izan da: *ederra daukazu* (*daukzu* Arantzan), *ederra duzu* -rekin batera, ‘jai daukazu’ errateko. *Iduki* aditz partizi- pioa bai baliatzen dela, baina betiere *kontu* edo *eutsi* aditzen adierare- kin¹⁶: *preso iduki, burutan iduki, eskutan iduki...*

SINTAXIA

1. **Denborazko perpausak:** *-(e)larik>-likan* nagusitzen da *tor tzelikan; mu- tikuk koxkortzen dielikan; nai zulik asiko gera...* Hala ere, *-(e)nean>nin* ere erabiltzen da batzuetan *guratsuk etor tzirenin; ura goitti ateitzen de- nin*. Nafarreraz eta ekialdeko hizkeretan ohikoa da *-larik*. Bortzerrieta- ko testuetara jotzen badugu, denbora adierazteko *-(e)nean* gehiagotan agertzen dela ohartzen gara. Hortaz, berrikuntza itxura duen *-likan* hondarreko aldi- an gailenduz joan dela erraten ahal dugu.
2. **etorri bada etorri modukoak ‘etorri denetik, etorri denez geroztik’:** denborazko perpaus mota hauek frankotan baliatzen dira *etorri bada etorri ez da isildu, erittu bazen erittu ez zun burua altxatu*. Honako perpausak Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan ere ezagunak dire- la badakigu.

¹⁵ Dena den, egileek gaztigitzen digute *eduki* aditza Bizkaian eta Gipuzkoan baino hagitzez gu- tiago erabiltzen dela Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 143).

¹⁶ ‘Tener’ baino areago, iduri du ‘retener’ nahiz ‘contener’ adierazten duela.

3. **Perpauus hautakarietan** *edo*>(d)o (vs. ala): *bortz do sei urte; ardiyekin asi o; ola do ola...* Hau da bertako euskarak ezagun duen aukera bakarra. “ala” ez da baliatzen.
4. **-(e)n perpauus konpletiboetan**: jakina denez, Nafarroako zenbait eskualdetan¹⁷ *uste, iduritu* eta antzeko aditzekin osatutako perpauus anitzek *-(e)n* morfema hartu ohi dute, *-(e)la*-ren ordez. Koldo Zuazok ere zerbait erraten du gure eremuaz (1997: 405):

Bortzerrietan ere ezaguna da *-en*, nahiz eta ez dirudien gazteriaren jardueran ohikoa; cf. Igantzin jaso dudana *uste (d)ut afaltzera torko den edota* Gamindek (1994: 236) Etxalarren jasotako *uste dut bazkaldu (du)ten; eztut uste ekarri (du)ten*.

Gure datuen arabera, gertakari hau Bortzerrietan ezaguna da, baina ez da ohikoa gazte(ago)en artean. Guk hagitzez azkarrago sumatu dugu Zugarramurdiko eta Sarako lagunen artean, adibidez. Irun-Hondarribian bederen ezaguna da, *-(e)la* gehiagotan erabiltzen bada ere (Sagarzazu 2003: 28).

5. **-(e)la eta -(e)nik perpauus konpletiboetan**: hau ere Nafarroan aski ezaguna da, Bortzerrietan baiezko nahiz ezezko perpauusetan *-(e)la* erabiltzen da frankotan, *-(e)nik* ere zenbaitetan erabiltzen den arren: *inork etzun espero norbattere agertuko zela, neri etziaten erran inñ biar ez nula...* baina *nik ez nakin ura antxe zanen tzenik*.
6. **Kausazko perpauusak**: *-(e)lako* morfema da gehien erabiltzen dena kausazko perpauusak eraikitzeke tenorean *berandu etor naiz lagun bat arrautu dutelako; ori ola suertzen delkoz...* Dena den, kausazko perpauusak egiteko era ugari daude, eta hauek guziak testuetan ere aski ongi dokumentatuak dira: *certic distintoac edo berechac diren; ceren den yzpiritu uts garbiya edo puruba; emayten delacotz* (Berako dotrina)... Gaur den egunean, *zengatik(an), zertik(an)* eta *zertaz* bildu ditugu guk, *-lako* morfemaz gain.
7. **Bait partikularen balioak**: bi balio izaten ditu honek gure eremuan: batetik, kausa nahiz azalpena *orrek ez du yeus ere itten, alferra baita* (Bera) edo *ortako obe zu bertzi ori, au atzo izortu baitzen* (Etxalar); eta bertzetik, erlatiboa adierazten duena, baina nolabaiteko azalpena eman ohi duena *Zigardiberea dago or erreka zulo ortan malda bat baita, ba ortxe* (Bera) edo *nola kaparra xe-xea zanen litzeken bezala, kakaxta do kaparra erratten baita, ardiyek ta izatten baite, gisa ortakua izan biar du* (Igantzi). Bigarren balio honen hedadura murriztagoa da, Euskal Herria bitan zatituta Bortzerrietako herriak ekialdean gelditzen direlarik. Oiartzunen ere ezaguna da (Fraile & Fraile 1996: 131).
8. **Perpauus kontsekutiboak**: kausa>ondorioa adierazten duten perpauusetan honako adibideak jaso ditugu *zenbatez lenao torri, ordun ta diro geigo irauzko zu; zenbatez ta geyo erran, orduan ta kaso guttigo itten du. zenbatez honetaz landara, zenbatenez ere maiz aski aditzen da: zenbatenez abudogo, obekio ‘zenbatenez agudoago, (orduan eta) hobeki’;*

¹⁷ Ikus N’Diaye 1970: 217; Ibarra 1995: 515 eta Ibarra 2000: 206.

zenbatenez azkargua zan, orduan ta kaskarrua 'zenbatenez azkarragoa izan, orduan eta kaskagorragoa'. Bi aukerok, *zenbatez* eta *zenbate-
nez*, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko mintzoetan bereziki erabil-
tzen direla badakigu.

9. **Erlatibozko perpausak:** aitzineko *bait* partikulaz gain, erlatiboa egi-
teko hiru era daude: *-(e)n* + izena egitura, aditz laguntzailerik gabe-
koetan *-tako* atzizkia eta aditz nagusiari *-ko* zuzenean erantsiz. Berako
dotrinan, berriz, behin honako adibide hau aurkitu dugu *confesoriac
eman penitentziyaz gañera*, partizipio soilarekin egina, alegia. Egun
egitura hau Ipar Euskal Herrian, Baztanen eta Aezkoan erabiltzen da,
aldeak alde (Camino 1997: 475-476). Dena den, *atzo erranko gezurra*
(Bera), *dena itxin einko gauzak* (Etxalar) modukoak ezagunak dira
(ikus Euskaltzaindia 1987: 88-89), hau da, partizipioa jokatu gabeko
perpausak, nahiko izaten delarik *-ko* zuzenean eranstea. Diakronian,
Lesakako predikuan ageri da gehien egitura mota hau. Egun, Baztan-
en eta muga ondoko hizkera lapurtarretan ere ezaguna dela badaki-
gu.
10. **Baldintzako perpausak:** Bortzerrietan baldintzaren protasian aukera
bikoitza aurkitu dugu: *zanen balitzeke bezala* (Igantzi), *nausi eiñen
bagiñeke* (Lesaka)... etorkizuneko atzizkia erabiltzen da; eta *-t(z)en*
atzizkia *unela suertzen balitzeke* (Bera). Diakronian, Lesakan ere hau
ageri zaigu *baldin icusten baguenoque, erratten baluque...* gainerako
testu guzietan etorkizuneko atzizkia nagusitzen da. Gaur egunean ere
etorkizunekoa gehiagotan azaltzen da protasian. *-tzen* honen geogra-
fia hedaturak Ultzama, Erroibar, Ipar Euskal Herria, Baztan eta Bi-
dasoaren alderdiak hartzen ditu (Camino 2000a: 145; Epelde 2004:
292). Guk Malerrekan Bortzerrietan aurkitu dugun egoera bertsua
ikusi dugu. Bertizaranan, ordea, iduri du *-tzen* maizago erabiltzen
hasien dela. Bertze alde batetik, badira aditz laguntzailerik gabeko
(iraganeko) baldintzako perpausak ere, aski maiz erabiltzen direnak:
yakin izattera ez nitzen etorko 'jakin izan banu, ez nintzen etorriko',
torri zattera ikusko zuken 'etorri izan bahintz, ikusiko huen' (Bera).
11. **Nominalizazio batzuk:** *atrebitu, eman, lagundu, saiatu, utzi* eta *yarri*
(ohitu'ren adieran) aditzek eskatzen duten nominalizazioaz ari gara:
-t(z)era(t). Honat guk bildutako adibide batzuk: *ez nuk atrebittu erra-
ttera* (Arantza); *saiatuko naiz eustera* (Arantza); *saiatuko naiz lan ori
ittera* (Bera); *utzitzen baduzu arropa bustitzera; ze, yarri yaiz lan ori
eitterat?* (Bera); *oztutzeat utzitzen zuten* (Etxalar); *guratsuk ez ziguten
utzitzen yostatzerara* (Etxalar); *arek lagundu nai ziola gauzak eramittera*
(Lesaka); *yatera man; edatera man...* Bortzerrietako testuetan honela-
koak ditugu *ez utzi tentaciuan erortzera, edatera eman, yatera eman*
(Berako dotrina). Ezaguna denez, ekialdeko euskalkietan *-t(z)era* na-
gusitzen da, eta mendebalekoetan, berriz, *-t(z)en*. Beraz, Bortzerrieta-
ko euskara ekialdeko eta iparraldeko hizkerekin ageri zaigu, gazteek
(euskara batua dela medio) *-t(z)en* gero eta gehiago erabiltzen duten
arren¹⁸.

¹⁸ Baztanen ere halatsu dela iduri du, Basaburuan bederen. Anizko Maitane Maritorena lagun(tzaile)ak errana.

12. **Osagarri zuzena genitiboan/absolutiboan:** guk aztertu dugun ahozko corpusean ez dugu alerik ere harrapatu; aitzitik, Bortzerrietako eskuidatzietan frankotan azaltzen den ezaugarria dugu honako hau: *obra on baten eguityen; unen izatyeco; arraza gaichtuen quentzeco; illen eta bicien yuzcatzera* (Berako dotrina)... *vere gorputzaren apainzen eta ezta ocupatzen pusco bat siquiera veñere ill biar eztuben vere animaren adornatzen; decretuba estuba orren cumplitzia* (Lesaka)... Alde honetatik, oroitarazi beharko dugu testuok ez direla sobera zaharrak, duela 150 urte ingurukoak baitira. Gaur Baztan-Esteribar lerrotik ekialdera eta Ipar Euskal Herri gehienez aurkitzen da (Camino 1997: 502-504; Zuazo 1998b: 19).
13. **añaldiñal/bez(a)inbat konparazioan:** *aña* eta *diña* dira nagusiki erabiltzen direnak, baina *bez(a)inbat* ere ez da ezezaguna. Nolanahi ere, erran beharra da *diñak* erabilera murriztagoa duela: *probatzeko diña manen dit, orrek bizitzeko diña matten du*. Bortzerrietan nekez aditu-ko dugu **berak nik diña itxe battu*. Hedadurari dagokionez, *aña* ez bertze biak Nafarroan eta ekialdean ohikoak dira (Camino 1997: 488; Ibarra 2000: 219; Salaberri 2000: 250).
14. **Ezikan eta ezen ez konparazio-perpausetan:** partikula hau adin jakin batetik goitikoek bakarrik erabiltzen dute, gazte batzuek ez baitute ezagutzen ere. Hona hemen Berako adibide pare bat *obe da lan ittia ezikan ez ittia* eta *obe da goiz yiki ezen ez gero lasterka ibilli*. Malerrekan ere erabiltzen dutela erantzun digute. Bertzela ere, hedadura handi samarra du gertakari honek Nafarroan barrena¹⁹. Aitzitik, mendebalean eta erdialdean ez da ezaguna.
15. **ni ez bertze guziyek egitura:** *ni ez bertze guziyek yuan ziren pillot partidua ikustera* (Igantzi), *arriba zarna ez bertze guziyek kanporat ateri ziren* (Bera). Dena den, erran beharra da *izan ezik* gero eta gehiagotan sumatzen dela gazteen artean.
16. **al galde partikula:** bertako testuetan ez da behin ere azaltzen, eta guk ere adin batetik goitikoaren artean ez dugu sumatu. Dena den, gazteagoen artean noizbehinka aditzen ahal da, batere ugaria ez bada ere. Malerrekan, aldiz, hagitzek gehiagotan agertzen da. Bortzerrietatik iparraldera nahiz ekialdera ez da batere ohikoa. Goizuetan eta Oiarztunen, ordea, arrunta da.
17. **egin indargarri gisa:** berriz ere Malerrekan eta Bortzerrien arteko muga nabarmen egiten da. Izan ere, Malerrekan *egin* indargarria ohikoa den bitartean, Bortzerrietan aise gutiagotan sumatzen da. Halarik ere, *al* partikularekin ez bezala, Bortzerrietako helduen nahiz adinekoen artean zenbait adibide jaso ditugu, testu zaharretan behin ere ez badugu ere: *pasatu iten tzen* (Etxalar); *gure atta zenak berexi iten tzun xurixua ta granza* (Etxalar); *gurutu iten tzen* (Etxalar); *arek bezala yan itten dio* (Igantzi); *pixkot moldatu ein dut* (Lesaka)... Hortaz, berri samarra ematen duen ezaugarri hau zenbaitetan agertzen da, baina ez Malerrekan edo Goizuetan nahiz Gipuzkoan bezain maiz.

¹⁹ Ikus Camino 1997: 490; Ibarra 2000: 219; Salaberri 2000: 250.

Baztanen, Bortzerrietan dagoenaren gisako egoera aurkitu dugu guk ere: ez ohikoa, ez arrotza.

LEXIKOA

Lexikoari dagokion atala egiteko, gure datuez eta orain arte erabili ditugun baliabide bibliografikoez gainera, Euskal Atlas Etnolinguistikora (EAEL) nahiz Etxaideren *Encuestas lingüísticas* lanera jo dugu; betiere, gure eremuan dauden item lexikalak geografian barrena nola hedatzen diren erakusteko asmoz. Tamalez, oraindik alderdi lexikoaren azterketa dialektologiaren atalik antzuen gertatzen da. Izan ere, arras konplexua suertatzen zaigu eremu batera jatorri ezberdina duten eragin lexikalak nondik eta noiz etorri diren zehaztea.

Bertze alde, Bortzerrietako berriemaileez landara, atal hau osatzeko inguruko bertze lagun batzuegana jo dugu, lexikoari dagokionez ere, gure xede kontrastiboa gauzatu ahal izateko. Hona hemen berriemaileon zerrenda: **Txomin Sagarzazu** (Irun-Hondarribia), **Juanma Sarasola** (Hondarribia), **Graxi Solorzano** (Azkaine), **Bernadette Errandonea** (Sara), **Beñardo Goietxe** (Zugarramurdi), **Joseba Otondo** (Elizondo eta Baztangoiza), **Paxkual Rekalde** (Baztan), **Maitane Maritorea** (Baztango Basaburua), **Jorge Oteitza** (Oronoz-Mugairi), **Patxi Petrirena** (Sunbilla), **Txema Aldabe** (Malerreka), **Markel Lizasoain** (Oitz eta Saldias), **Begoña Urroz** (Beintza-Labaien), **Bittorio Lizarraga** (Leitza, Ezkurra, Eratsun eta Saldias). Denei mila esker hitzez hitz erantzuteagatik.

Hondarreko urteotan jasotako corpusa multzoetan sailkatuko dugu, zenbait ezaugarri lexikoren isoglosak non kokatzen diren jakiteko.

1. Ez da harrizkoa Euskal Herriaren erdigunean dagoen gure eremuak nortasun lexiko apala izatea. Hori dela eta, **item lexiko edo aldaera eskusibo guti** kausitu ditugu: *armigo* ‘armiarma’, *ateri*²⁰, ‘atera’, *suspel* ‘ospel’ eta *txori-izigarri* ‘txorimalo’. Bai eta kulturalki arras markatua den *eltzetzuk* ‘karabineroak’²¹ solasa ere.
2. **Bortzerriak banatzen duten zenbait hitz** aurkitu ditugu. Honetan, hiru azpisail eginen ditugu: Bera eta Etxalar gainerako herrietatik aldentzen duten itemak; Etxalar bertze lau herrietatik urruntzen dutenak. Arestiko bi azpisail hauek Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasuna adierazten dute. Azkenik, Lesaka gainerako herrietatik aldentzen duten hitzak ditugu, Oiartzunekiko kideasuna agerian utziz. 2.1. Bera eta Etxalar: *etsi*²² vs. *itxi*; *eya*²³ ‘ukuilua’ eta *goya*²⁴ ‘ganbara’; *gasna* vs. *gazta*; *pastanarre*²⁵ vs. *zanaoria*; *ttu* vs. *listu*; *zilo* vs. *zolo/zulo*. 2.2. Etxalar: *arbua*²⁶; *ats/arrats* vs. *arrats*; *boneta* vs. *zapela*, *fitelabudo* vs.

²⁰ Dena den, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan inoizka aditzen da *ateri*, *ate* aukera nagusia baldin bada ere.

²¹ Karabineroak mugazainak ziren. Egun, ordea, *eltzetzu* Espainiako goardia zibilari erraten zaio.

²² Hau bertze herrietan ezaguna da, baina *itxi* da haietan aukera nagusia.

²³ Irun-Hondarribian, Urdazubi-Zugarramurdin eta muga ondoko herri lapurtarretan ere bai.

²⁴ Gainerako herrietan *ganbara* nagusi da, nahiz eta *gottia* eta *bi(ga)rren goya* ere ezagunak diren. Caro Barojak (1986: 37-42) Berarako *ganbara* eta *eya* dakartza.

²⁵ *Pastanarre* maizago aditzen da Etxalarren Beran baino. Montoyak Zugarramurdi-Urdazubirako *pastanarre*, *postanobre* eta *pastenagre* aldaerak ekarki ditu (2004: 256).

²⁶ Gainerakoetan *arbaztak*, eta Baztanen nahiz Bertizaranan *arbak*. Zugarramurdin *arbuak*.

- abudo; gisul/kisu vs. kisu; manatul/agindu vs. aginyu; orai vs. (g)uaiñ; pe-terraba²⁷ vs. erremolatxa; ungilongi vs. ongi; untzilontzi vs. ontzi.* 2.3. Lesaka: bertan bada hitz bat Bortzerrietako bertze herrietan erabiltzen ez dena: *kallatua* ‘mamia, gatzatua’. Bertzeetan, *gaztanbra* dugu. Oiarzunen ere (Fraile & Fraile 1996: 238) bada *kallatua*. Halaber, Lesakan *gaztanbra* dena, bertze lau herrietan *zenberena* ‘gaztanbera’ dugu, ‘requesón’.
3. **Bortzerrietan, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan** kokatzen dira ondoko hauek, batzuk Baztanen ere badaude, bertze batzuk muga ondoko hizkera lapurtarretan, bertze batzuk Irun-Hondarribian eta bertze batzuk Basaburu Ttikian: *ama(i)garro* eta *atta(i)garro* ‘amaginarreba eta aitaginarreba’, *agitz* ‘oso’, *ajarika* ‘algaraka’, *atrunki(ka)* ‘doministikuka’, *bazalal/bizala* ‘bezala’, *barkazio* ‘opor’, *barrenki* ‘errai’, *bekets* ‘hagitz jatuna’, *bidali*, *bixtu* ‘piztu’, *burdi* ‘gurdi’, *deseyu* ‘desio’, *erabera(t)* ‘arabera’, *elur-luma* ‘elur-maluta’²⁸, *ernatu* ‘iratzarri’, *ereno* ‘herenegun’, *errestu* ‘arrasto’, *errixta* ‘errieta’, *futre*²⁹ ‘putre’, *gorde* ‘ezkutatu’, *isan*³⁰ ‘mantendu, eutsi’, *(kata)putxintxa* ‘katagorri, urtxintxa’, *lezten* ‘ezten’, *lixatu* ‘askatu’, *porrakatu* ‘xehatu, txikitu’, *sendor* ‘astun’, *trebe* ‘ausart’, *yiki* ‘jaiki’.
 4. **Bortzerrietan, Goizuetan eta Gipuzkoako ipar-ekialdean dauden hitzekin multzo ttiki bat osatu dugu**: *aba* ‘aho’, *bitxindorra* ‘begitxindorra, bekatxo’, *gorotz* ‘ongarri’, *osiñ* ‘asun’.
 5. **Bortzerrietan, Goizuetan, Gipuzkoako ipar-ekialdean eta ondoko hizkera lapurtarretan dauden solas batzuk**: 5.1. *balakatu* ‘ferekatu’, *padera* ‘zartagin, danbolin’. Aitzinekoetz gainera, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan daudenak: 5.2. *aisa* ‘aise, erraz’, *besotako* ‘besoetako, semebitxi edo alababitxi’, *burne*, ‘burdin’, *itxe*³¹ ‘etxe’, *senide* ‘anaia-arreba’. Goizuetan, Gipuzkoako ipar-ekialdean, ondoko hizkera lapurtarretan eta Baztan-Bidasoan ere badaudenak: 5.3. *alki* ‘aulki’, *arpegi* ‘aurpegi’, *erausin* ‘berriketan’, *guri* ‘bigun’, *iguinyu* ‘higuindu, nardatu’, *laketu* ‘toki batean jarri, moldatu’, *paze* ‘pertzta’.
 6. **Baztan-Bidasoa** eskualdea osoki atzematen duten eleak, Baztan, Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortzerriak: *aldenbertze* ‘alde batetik bertzera’, *balekebale* ‘balekibale, badaezpada’, *illupa* ‘ergel’, *pizar* ‘pittin, pixkatxo’.
 7. **Ondoko item lexikal hauek Nafarroan ohikoak** dira, hauetatik batzuk iparraldera edo ekialdera ere ezagunak direlarik: *abarrikatu* ‘suntsitu, desegin’, *aizego* ‘haize hego’, *aixtin* ‘arestian, oraintsu’, *altxatu* ‘gorde’, *amautxi* ‘amona eta amabitxi’, *at(t)autxi* ‘aitona eta aitabitxi’, *arraso* ‘arras, zeharo’, *arraztalu* ‘eskuarea’, *arront* ‘arunt, arras’, *aski*, *atari* ‘ate, sarrera’, *atrunki(ka)* ‘doministiku(ka)’, *atsa* ‘arnasa eta hatsa’, *atsanka* ‘arnasestu’, *atsankaka* ‘arnasestuka’, *aunitz* ‘anitz, asko’, *ausar-*

²⁷ Frantsesez *betterave* da. Azkainen nahiz Saran *beterraua* eman digute. Zugarramurdi-Urdazubin *betarraba* (Montoya 2004: 255).

²⁸ Irun-Hondarribian eta Azkainen bai. Baztanen, ordea, *elur-zafla* eman digute.

²⁹ Baztangoizan, Saran eta Azkainen *futre* eman digute.

³⁰ Malerrekan *esan*.

³¹ Baztango Basaburuko lau herrietan eta Nafarroa Garaiko erdigunean ere han-hemenka ageri da.

ki ‘ugari’, *azazkal* ‘azkazal’, *azinda* ‘animale’, *azkarki* ‘sendoki, ugari’, *azpixun* ‘txerriaren solomo txikia’, *bago* ‘pago’, *baru* ‘barau’, *bedere* (*n*) ‘bederen, gutxienez’, *berats* ‘bigun’, *berendu* ‘askari’, *beztitu* ‘jantzi’, *bizkar-besta* ‘etxeari teilatua emanda egiten den besta’, *bulkatu* ‘bultzatu’, *buztarrri* ‘uztarrri’, *dermiyo* ‘eremu, lurralde’, *doi-doi* ‘ozta-ozta’, *duikabe* ‘segur aski, ustez’, *errestan* ‘arrastaka’, *erroitz* ‘amildegi’, *espetu* ‘itxoin’, *etzin* ‘etzan’, *gargero* ‘honezkero’, *gogotu* ‘bururatu’, *goibel* ‘hodei’, *goittu/goittittu* ‘igo, altxatu’, *guatze* ‘ohantze, ohe’, *guratsa* ‘guraso’, *ittausura* ‘itogin’, *ixtape* ‘hankarte’, *izotz* ‘izotz zuri, antzigar’, *koropillo* ‘korapilo’, *kuarto* ‘laurden’, *landa* ‘ereiteko alorra’, *matell/matelezur/matelezurko* ‘masail/matrailezur/masaileko’, *mintzatu*, *mixtuk* ‘pospolaok’, *nabala* ‘aizto’, *noski* ‘ustez’³², *orma* ‘izotz’, *oratu* ‘zikindu, zipriztindu’, *oroit(t)u* ‘gogoratu’, *ostatu* ‘taberna’, *paratu* ‘ipini, jarri’, *pikor* ‘ale’, *pirrillafirrilla* ‘gurpil’, *pixko* ‘pixka’, *sakel* ‘poltsiko’, *solastu* ‘hitz egin’, *sor/gor* ‘gor’, *sos* ‘diru’, *tarrapataka* ‘presaka, estropezuka’, *tenore* ‘garai’, *t(t)et(t)elo* ‘tontoa’, *ttiki* ‘txiki’, *ttotto(r)ika* ‘kukubilko’, *ttuntuna* ‘txistua’, *urrikaldu* ‘errukitu’, *urrikitu* ‘damutu’, *xetu* ‘txikitu’, *xixikatu* ‘xehatu, txikitu’, *yarri* ‘eseri’, *yendaki* ‘ahaide’, *zango* ‘hanka’, *zare* ‘saski’, *zartari* ‘zartagin’, *zipatu* ‘blaitu’, *zirrika* ‘polea, gurpil’, *zolda* ‘uher, zakar’, *zurmiyua* ‘orkatila’, *zurniyua* ‘zorne’.

Arestiko multzotik batzuk Irun-Hondarribian ohikoak dira (bertako aldaerak emanen ditugu): *aizego*, *arrant*, *atari*, *azienda*, *bulkatu*, *goittitu*, *kont(t)en*, *gargero*, *idurittu*, *izotz*, *orma*, *oroit(t)u*, *tenore*, *ttiki*, *txetu*, *urrikaldu*, *txurmiyua*. Bertze batzuk, aldiz, ezagunak dira (ez ohikoak): *aistian*, *karrika*, *ostatu*, *uskara*.

8. **Ipar Euskal Herriko mintzoen isuria islatzen duten solasak ez dira guti.** Gehienak Baztanen eta ekialderagoko hizkeretan aurkituko ditugu. Hitzokin bi azpisail antolatuta ditugu: Malerrekara iritsi ez direnak eta iritsi direnak. Bereizketa hau egitea garrantzitsua da, arrunt guti baitakigu Malerrekaren eta Bortzerrien arteko isoglosez. Hona hemen Ipar Euskal Herrian eta Bortzerrietan erabiltzen diren solas batzuk, eta Malerrekan baliatzen ez direnak. 7.1. *agiyan* ‘desio eta konfiantza adierazteko’³³, *afera* ‘kontu’, *antzi*³⁴ ‘ahantzi’, *atxiki* ‘atxiki, eduki’, *bokata* ‘arroparen garbitzea’, *eriaro* ‘ekain’, *fier* ‘menderakaitza’, *gabnara* ‘saguxarra’, *illar* ‘babarrun’, *illarbilla* ‘ilar’, *kanita* ‘ganibeta, sakelako labana’, *koko(r)ika/kokolka* ‘kukubilko’, *kasalla* ‘kasaila, gatazka’, *kokin* (frantsesez *coquin*) ‘aldarte txarreko’, *marranta*³⁵ ‘ahotsa laztu, zintzurra hartu’, *nardatu*, *piro*³⁶ ‘ahate’, *telefonatu* ‘telefonoz deitu’, *zerrakura* ‘hesitura’. 6.2. Ondotik, Ipar Euskal Herrian, Bortzerrietan nahiz Malerrekan erabiltzen diren solas batzuk: *a(i)xtur* ‘gu-raize’, *alimaleko*³⁷ ‘sekulako’, *ausarki* ‘nahikotxo’, *autsiki* ‘heldu, kosk

³² Baztanen, Zugarramurdin, Lapurdin... *naski* aldaera dago.

³³ *Bentia berri bat paratu te Ibaridiñan, ya ongi ateitzen zayoten. Agiyan bai!* (Bera). Nafarroa Behereko eskutiz batean ere ageri da (Kaminondo & Salaberri 2004: 102).

³⁴ Irun-Hondarribian ere ezaguna. Nafarroa gehianean, berriz, *atzendu*.

³⁵ Malerrekan *marranta*. Irun-Hondarribian, Baztanen eta Zugarramurdin, aldiz, Bortzerrietan bezala.

³⁶ Irun-Hondarribian ohikoa.

³⁷ Nahiz eta Malerrekan *animalizko* gehiago eman diguten.

egin', *Besta Berri* 'Corpus Cristi', *estomaka* 'urdail', *eltzaur*³⁸ 'intxaur', *kokalux* (frantsesez *coqueluche*) 'eztularen gaitza', *gariologi* 'gari'³⁹, *punit(t)u*⁴⁰ 'zigorra jaso', *pozal* 'ontzi handi', *xingar* 'hirugiharra', *zertaz/ze(re)ngatik* 'zergatik', *zipatu* 'blaitu', *zozoa* 'tonto'.

9. Euskal Herria bitan (eta hirutan, batzuetan) zatitzen duten aldaera nahiz item lexikal anitzetan, **Bortzerriek ekialdeko hizkerekin bat egiten dute**: *aitzin vs. aurre*; *ameka vs. amaika*; *apez vs. apaiz*, *abade*; *apo vs. zapo*; *arotz vs. errementari*, *errero*; *atorra vs. alkandora*; *auts*⁴¹ *vs. puskatu*, *apurtu*; *azkar vs. sendo*, *gogor*; *banaz bertze vs. bataz beste*; *beldur*⁴² *vs. bildur*; *bei(t)ti vs. bera*; *biarri vs. belarri*; *biarrik vs. eskerrik*; *bidenabar vs. bide batez*; *daldar vs. dardar*; *deus (ere) vs. ezer*; *el-du da vs. dator*; *egal vs. ego*; *elkar vs. alkar*; *erde vs. lerre*; *eskuin vs. eskubi*, *eskuma*; *eltze vs. lapiko*; *eri vs. gaixo*; *ero vs. zoro*; *erran vs. esan*; *erriko itxia vs. udaletxe*, *ayuntamiento*; *ertze vs. este*; *ezkilla vs. kanpai*; *galde-tuleskatu vs. eskatu*; *gibell(bi)el vs. atze*; *gorri(ñ) vs. elgorri*; *goi(t)ti vs. gora*; *gut(t)i vs. gutxi*, *gitxi*; *guzi*⁴³ *vs. guzti*; *ideki*⁴⁴ *vs. ireki*; *idortu vs. leortu*, *sikatu*; *iduki vs. eduki*; *iduri du vs. dirudi*; *ille vs. artil(l)e*, *ardil(l)e*; *inñalak vs. eginalak*; *itze vs. iltze*; *iretsi vs. irentsi*; *irauntzi vs. erantz*, *iruzki/iguzki vs. eguzki*; *irri vs. barre*; *izit(t)u*⁴⁵ *vs. izutu*; *kider vs. kirten*; *kukuso vs. arkakuso*, *ardi*; *laster(ka) vs. korri(ka)*, *ariñeketan*; *maingu vs. erren*; *matxutxal/matzu(r)za vs. masusta*; *mutil vs. morroi*; *neskato vs. neskame*; *nigar vs. negar*; *obekio vs. obeto*; *ongi*⁴⁶ *vs. ondo*; *oyan vs. baso*; *pixa*⁴⁷ *vs. txiza*, *txixa*; *sagarroi vs. triku*, *kirikino*; *sainga vs. zaunka*; *sobera vs. gehiegi*, *larregi*; *sortulyayo vs. yayo*, *jayo*; *sukar vs. kalentura*; *uriñ vs. koipe*; *urriki vs. erruki*; *yauntzil/beztit(t)u vs. jantzi*, *yantzi*; *yautsi vs. jaitsi*; *yostatu vs. jolastu*, *olgotu*; *xilko vs. zilbor*; *zapatu vs. zapaldu*; *zinaurri vs. txingurri*, *iñurri*; *zintzur vs. eztarri*; *zurgin vs. arotz*.
10. Badira bertzelako aldaera edota **item batzuk Euskal Herria erdibitzen dutenak, Bortzerriak ekialdeko mintzoetatik aldentzen dutenak**. Dena den, erran beharra da gutixko direla, aitzineko multzoan ez bezala: *antzeko vs. iduri*; *aspo vs. ausko*; *berandu vs. berant*; *ille vs. bilo*; *reloju vs. erloju*; *santu vs. sa(i)ndu*; *trumoi vs. ortots*, *ortzi*; *txalo vs. esku-zarta*.

Arestian aurkeztutako ezaugarri lexikoen arabera, Bortzerrietan aditzen diren hitz anitz Nafarroan ere aski ezagunak ohi dira, bereziki, ondoko eskualdeetan. Nolabait ere, item hauek *nafar* edota eskualdeko kolorea ematen diote eremuari. Bertze alde, Ipar Euskal Herriaren isuria ere nabari da, nahiz

³⁸ Malerrekan (*g*)*iltxaur* ere bai.

³⁹ Izen bezala, *gari* gehiagotan erabiltzen da; baina, *ogi-landa*, *ogiburu* arrunt gailentzen dira.

⁴⁰ Bortzerrietan, *zigortu*, *kastitu* eta *punit(t)u* aditzak erabiltzen dira. Lehen biek 'zigortu' adiera dute, eta hirugarrenak, aldiz, 'zigorra jaso'.

⁴¹ Gipuzkoan ere erabilia.

⁴² Nahiz eta ekialderago *lotsa* ere 'beldur' adierarekin erabiltzen duten.

⁴³ Gipuzkoako ipar-ekialdean eta Beterrin erabiltzen da.

⁴⁴ *edeki* Baztanen, Zugarramurdin, Lapurdin... -*d-* duten aldaeren barrenean dago.

⁴⁵ Baina gero *izugarri*. Dena den, testu zaharretan *izigarri* ageri da. Halaber, *txori-izigarri* ere erabiltzen da 'txorimalo'.

⁴⁶ Nahiz eta *untsa* egon ekialdeko hizkeretan.

⁴⁷ Gipuzkoan ere erabilia.

eta, Bortzerrietako gaurko dinamika sozio-ekonomikoa nahiz kulturala ikusirik, mugaren oztopoa gero eta gehiago sumatzen den. Gainera, kontuan izan behar dugu egungo indar bateratzaileak ez direla inondik ere iparraldetik heldu, Ipar Euskal Herriko egungo egoera (sozio-ekonomikoa, kulturala...) franko ahula delako. Era berean, ez du iduri euskararen indarra ekialdetik ere heldu denik: Baztanen, euskararen egoera txarra ez bada ere, sozio-ekonomikoki nahiz kulturalki indar apala igortzen baitu, eta norabait igortzekotan, Ultzamara edo Esteribarrera. Aitzitik, Bortzerriek hagitzez gehiagotan egiten dute bat ekialdeko hizkerekin, mendebalerago daudenekin baino. Hortaz, lexikoaren kokapenari dagokionez, Bortzerrietatik Nafarroa eta Ipar Euskal Herria hurbilago ageri dira; zenbaitetan, Gipuzkoako ipar-ekialdea hurbiltzen bada ere.

Batzuetan, eta ez gutitan, Bortzerrietan baliatzen diren solasak Irun-Hondarribian ere ohikoak edo ezagunak dira. Segur aski, lehengo garai baten ondorio direnak, gaur den egunean, Gipuzkoako bi herriotan gipuzkera oinarri duen euskara batua arrunt sartua baita; eta zer erranik ez, gaztelania. Isoglosa horiek iparraldetik heldu dira gehienbat, horietako batzuk ez baitira Malerreka edo Basaburu Tikira iritsi; bai, ordea, Irun-Hondarribira, Bortzerrietara eta muga inguruko hizkeretara (Urdazubi-Zugarramurdi, Lapurdi eta Baztanera).

Aipatzekoa da hagitz item eskusibo edo aldaera guti aurkitu ditugula, hau da, Bortzerrietan baizik erabiltzen ez direnak. Bertze alde, eremua banatzen duten ezaugarri bakan batzuk ageri dira, Bera, eta areago Etxalar Ipar Euskal Herriko mintzoetara hurbiltzen dituztenak.

Badago multzo bat Bortzerriak eta Malerreka banatzen dituena. Hitz hauek mugaz bertze aldean ere ezagunak dira, garai bateko loturaren adierazgarri. Honen arabera, Malerreka *nafarrago* ageri zaigu, eta Bortzerriak, berriaz, Lapurditik hurbilago.

Lexikoari dagokion atala itxi aitzinetik, Gotzon Aurrekoetxeak (1992) Nafarroan egindako azterketa dialektometriko bat ekarri nahi dugu gurera. Izan ere, lan horretan, lexikoa da aztertzen dena (ez hizkera bat bere osotasunean). Aurrekoetxeak bere interpretazio geolinguistikoa, munta handiko bi ondorio ateratzen ditu:

1. Kohesio lexikal handiena duten herriak aipatzen dituenean, Arantza eta Sunbilla elkarrengandik hagitz hurbil ageri dira.
2. Bortzerrietarako Lesaka hartzen du eredu, erranez Arantza, Etxalar eta Bera, Lesakatik hagitz hurbil daudela; bigarren maila batean, Sunbilla, Malerreka, Beintza-Labaien eta Baztango Ziga ageri dira. Deigarria da, zinez, azterketa honen arabera, Bortzerriekin –Arantzarekin, zehazkiago– muga egiten duen Goizueta laugarren maila batean ageri dela, Zugarramurdi, Baztan (Ziga izan ezik), Esteribar, Erroibar eta Ultzama ibarren ondortik.

Aurrekoetxearen lanetik nabarmendu ditugun bi ondorioak direla eta, erran beharra dugu gure datu lexikalen arabera Arantza eta Sunbilla elkarrengandik hurbil egonda ere, ez duela iduri Arantzatik Sunbilla hurbilago dagoenik Igantzi edo Lesaka baino. Egia da Arantzak eta Sunbillak muga egiten dutela, eta ondorioz, bi herri arteko auzotasuna agerian dela, bai eta bertako batzuen arteko ahaidetasuna ere. Alabaina, harremanak batez ere ba-

serritarren artean gertatu dira; Sunbillako karrikan bizi direnek, sunbildar gehienek, Doneztebe aldera egi(te)n baitute. Bi arrazoi nagusirengatik: Doneztebe hurbilago dagoelako, eta aise zerbitzu gehiago eskaintzen dituelako: azokak, udazkeneko feria, aisialdia, kultura, Sunbilla egun Malerrekako Mankomunitatearen barrenean dago e.a. Hortaz, guk ez dakusagu Sunbilla Igantzi edo Lesaka baino hurbilago.

Bertze aldetik, bigarren ondorioak harritzen gaitu arruntean. Izan ere, Aurrekoetxeak egindako azterketaren arabera, Bortzerrietatik –Lesaka da eredu– Goizueta baino hurbilago daude inguruko herri guziak, Ultzama, Esteribar eta Erroibar. Zinez, sinesgaitza egiten da, bizkaitarrak dialektometriaren arauak ongi ezagutzen baditu ere. Gure datu lexikalen arabera, Goizueta ez dago linguistikoki geografikoki bezain hurbil, baina bai Erroibar, Esteribar eta Ultzama baino hurbilago. Ados gaude Aurrekoetxearekin Goizueta dela lexikalki (nahiz linguistikoki) aldentzen den inguruko herri bakarra, baina ez Ultzama, Esteribar edo Erroibarren gibelean paratzeraino.

Bidenabarrekoan, Aurrekoetxearen lan hori gabe ez genuela aitzinera egiten argi eta garbi adierazi beharra dugu. Irakasle bizkaitarrak ez baitigu Europa aldetik dialektometria alferrik ekarri Euskal Dialektologiara. Ekarpen hori bederen zor diogu.

ONDORIO NAGUSIAK

Orotara, Bortzerrietako euskararen 84 ezaugarri aztertu ditugu, azentue-rari buruzko ñabardurez eta atal lexikoaz landara: fonetika-fonologian 18, izenaren morfologian 24, aditzaren morfologian 25 eta bertze 17 syntaxian. Bortzerrietako euskararen erradiografia eginga dugulakoan gaude, bai eta ezaugarri hauek duten geografia hedaduraren berri eman dugulakoan ere. Beraz, aitzin-solasean aipatu dugun bezala, Bortzerrietako hizkerak berezko nortasun linguistikorik duen edo ez duen erabakitzeke tenorea heldu zaigu, beti ere lanean zehar aztertutako tasunen arabera.

Lehenik, erran beharra da ez dugula ezaugarri espezifikorik edo esklusiborik aurkitu, *-en* etorkizuneko atzizkiak bere horretan iraun duela eta item lexikal bakan batzuk izan ezik. Honek adierazten digu Bortzerrietako euskarak ez duela ondoko hizkeretatik berezi egiten duen deus, baizik eta hizkera hauekiko dinamika berean dagoela, geografian barrena *continuum* dialektal batean kokaturik.

Bigarrenik, Bortzerriak zeharkatzen dituzten isoglosa nagusiek gutitan banatzen dute eremua, Bortzerrietako euskararen barreneko batasuna gailenduz. Halarik ere, ezaugarriren batek gure eremua banatzen duelarik, Bidasoa ibaiaren arabera nahiz Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasunaren arabera egiten duela ematen du: batetik, Bera eta Etxalar, eta bertzetik, Arantza, Igantzi eta Lesaka. Izan ere, Bidasoaren alde berean gelditzen diren Bera eta Etxalar zenbaitetan Ipar Euskal Herriko nahiz ekialderagoko hizkera nafarrekin batean ageri dira, bertze hiru herrietatik –eta Sunbilla, Malerreaka... eta abarretik– aldenuz: *o>u* erakusleetan berrikuntza erregularragoa (Arantzan ere bai), *nor/zein* izenordainen bereizketa, *-rat/-ganat/-t(z)erat* adlatiboak, *-ganik* bizidunen ablatiboak, *-ki* aditz atzizkia puntukaritasuna adierazteko eta *gasna*, *ttu*, *zilo* bezalako aldaera lexikoak. Etxalar areago hurbiltzen da iparralderagoko hizkeretara: bustidura automatiko apala, *daike* ahalezko adizkiaren sin-

kopa eta *atsa, fite, gisu, peterraba, ungi* eta *untzi* gisako aldaerak nahiz item lexikalak. Hortaz, iparraldetik nahiz ekialdetik heldu diren hainbat isoglosa ez dira Bidasoaren bertze aldera iragan, eta hauetako batzuek Etxalar bakarrik hartzen dute, Hego Euskal Herriko mintzorik gehienetatik urrutiratuz.

Hirugarrenik, Arantza ere zenbaitetan bertze guzietatik bereizten da: soziolinguistikoki dagoen egoera paregabea, hitanoaren erabilera bizia, aferesiaren eta batez ere sinkoparen indarra aise handiagoa da arrunt bereizgarri izateraino. Arantzan antzeman dugu guk euskararen nortasunik sendoena, erran nahi baita hiztunen kontzientzian *uskara aranztarra* badela. Bertze herrietakoek ere hala sumatzen dute.

Gure lan honetan aipatu ditugun isoglosa anitz Bortzerriez gain Sunbilla, Malerreka, Bertizarana eta Baztango Oronoz-Mugairira ere iristen dira. Bai eta haratago ere Nafarroan barrena, nola Irun-Hondarribira. Zernahi gisaz, batzuk Sunbillara bakarrik ailegatzen dira: epentesi bizkorra, eta Sunbillak Arantzarekin dituen kideasunak: sinkopa jakin batzuk eta alderdi lexikala. Dena den, bertze batzuk ez dira Sunbillara ailegatzen: *-tzat* destinatiboa (eta ez *-tako*). Honelako kasuetan, Bortzerrietako herriak ondoko euskara nafarretik aldentzen direnean, Lapurdirekin eta bereziki Gipuzkoarekin batean ohi ditugu: *-tzat* destinatiboa, testuetako *-tzat* prolatiboa, *-on/-oi* bukaera bi-koitza eta epentesi bizkorra Gipuzkoan. Halaber, ezin aiantzi dugu azentue-raren kontuan ere Bortzerriak-Malerreka-Bertizarana taldea Gipuzkoarekin batean ageri dela, ñabardurak ñabardura. Bertze aldetik, ordea, Bortzerrietako euskara Gipuzkoatik urruntzen duten isoglosa mordoxka bat kausitu dugu: **j-* zaharra, *-rtz-* taldea, *bida* eta *lauetanogei* moduko zenbatzaileak, soziatiboaren erabilera denborazkoa, *noren baitan*, *norat*-en aztarnak, *bera* aposizioa, *-en* etorkizuneko atzizkia, aditz izenetako *-iten*, partizipio burutu gabea duten egitura perifrastikoak, *joan*-en adizkiak, *egon*-en adizkiak, *ibili*-ren adizkiak, *bait* partikularen balioak, lexikoa... Eta bertze ezaugarri batzuk Bortzerrietan nahiz Nafarroan indartsu dauden bitartean, Gipuzkoako ipar-ekialdean gutiago edo ahulago ageri bide dira: aferesiak, sinkopak, hasierako *e->i-*, *itteunte* moduko metatesiak, *-ketari* atzizkia, *inta* eta *errantako* bezalakoak eta adizkien singularreko bigarren pertsonako *y-*. Hondarreko bi multzo hauen arabera, iparraldetik nahiz ekialdetik heldu diren isoglosa anitz Bortzerrietan gelditzen dira, bertze batzuk Goizuetaraino iristen dira, eta azkenik, bertze batzuk Donostia bitarteko hizkeretaraino ere ailegatzen dira.

Batzuetan, dena den, Bortzerrietako eta ingurueta ezaugarri batzuk Gipuzkoako Irunen eta Hondarribian ere aurkitzen ditugu: *-katu* atzizkia, *-akeri* eta *-aken* plural pleonastikoak, N-N-N saileko *nori* kasuko hirugarren pertsonako *-o-* morfema bakarra, *nugun*, *nitugun* analogiaz sortutako adizki berriak eta lexikoaren atalean dauden antzekotasunak. Arestiko morfologia ezaugarriak denbora batean sortu eta zabalduetako berrikuntzak direla kontuan hartzekoa da. Horietatik bi, gainera, (*-akeri* eta *-aken* plural pleonastikoak eta *nugun*, *nitugun* analogiaz sortuak) *Bidasoalde* horretako eksklusiboak ditugu, ez baitira bertze inora hedatu. Garai bateko loturaren adierazgarri.

Bertze zenbaitetan Bortzerrietako ezaugarri bakan batzuk Leitzañ, Basaburu Ttikian eta Malerrekan aurkitzen ditugu: *u>o* eta *i>e* irekidurak eta *-z* instrumentala prolatibo gisa.

Orain arte erran dugunaren arabera, Bortzerrietako euskara ez da apartekoa ez hizkuntza tasunetan ez eta hiztunen kontzientzian ere. Orobat, ba-

tzuetan Bidasoa ibaiak muga-lana gauzatzen du, Bera eta bereziki Etxalar Ipar Euskal Herriko mintzoetara hurbiltzen direlarik. Bertze alde, Arantzak euskararik azkarrena eta bereizgarriena du.

Eremukako kokapen dialektologikoari dagokionez, Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranarekin batean ditugu, nahiz eta zenbait ezberdintasun agerian gelditu diren. Alde horretatik, nabari da Bortzerriak Lapurditik eta Gipuzkoatik hurbilago daudela, zeren Sunbilla, Malerreka, Bertizarana eta gure eskualdea banatzen dituzten ezaugarriak, Gipuzkoan eta Lapurdin ere badaude. Hortaz, erran genezake Bortzerriek batzuetan beren *nafartasuna* galtzen dutela, Nafarroatik aldendu eta ondoko bi lurraldeekin bat egiten duten neurrian. Gisa berean, Bortzerrietako hizkera –ondoko hizkera nafarren aldean– erdialderagokoa dela erran liteke.

Aitzitik, jarraian aipatuko ditugun herri edo eskualdeetan bai sumatzen dela alde handiagoa. Erraterako, gure eremuak alde banatan dituen Goizuetan eta Baztan guretik gehia(xe)go urruntzen dira. Eta urruntasunaren arabera ere, Gipuzkoako ipar-ekialdeko (Irun-Hondarribia batez ere, Oiartzun, Pasaia...) euskara genuke, eta urrutixeago Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta muga ondoko hizkera lapurtarrak genituzke.

BIBLIOGRAFIA

- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA [EAEL], (1984-1990): *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (2 liburuki), Donostia.
- AURREKOETXEA, G., 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro*, 5, 59-109.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , (arg.), 1998, *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo.
- , 2000a, "Goñerriko hizkera (II)", *ASJU*, 34:1, 137-196.
- , 2000b, "Abiaburu bat Donostiako euskara aztertzeke", in Zuazo, K. (arg.), *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 53-82.
- , 2003, "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV*, 94, 427-468.
- , 2004, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2004, "Nafarroa Behereko euskara", *FLV*, 97, 445-486.
- CARO BAROJA, J., 1986 [1944], *De la vida rural vasca (Vera de Bidasoa)*, Txertoa, Donostia.
- DUHAU, H., 2003, *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara. "Birdena" edo bigarren partea*, Akoka, Donibane-Lohizune.
- EPELDE, I., 2004, "Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz", *FLV*, 96, 271-303.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko hizkera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ETXAIDE, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- EUSKALZAINDIA, 1985, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-I*, Bilbo.
- , 1987, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-II*, Bilbo.
- , 1999, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*, Bilbo.
- FERNANDEZ, B., 2001, in Fernandez, B., & Albizu, P., (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean*, EHU, Bilbo, 147-165.
- FRAILE, I. eta FRAILE, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala.
- GAMINDE, I., 1985, "Nor-en ahalezko orain, eta joan, ibili eta egon aditzen alokutiboak (Nafarroan)", *FLV*, 46, 215-263.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 1996, "Bonaparteren sailkapena eztabaidatuz", *FLV*, 71, 71-86.
- , 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.

- IÑIGO, P., 1980, "Bortzerrietako erakusleez", *Euskera*, 12, 43-46.
- IÑIGO, P.; SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J., 1995, "-ki aditz-atzizkiaren gainean", *FLV*, 69, 243-295.
- IRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kultura Probintziala, Donostia.
- , 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, Iruñea.
- , 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, Iruñea, 258-259 eta 551-614.
- IZETA, M., 1996, *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- , 1999, *Baztango kontuak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- KAMINONDO, P. & SALABERRI, P., 2004, "Nafarroa Behereko hiru eskutitz", *FLV*, 95, 89-113.
- MONTOYA, E., 2004a, *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*, EHUko tesi argitaragabea.
- , 2004b, "Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea", *FLV*, 96, 249-269.
- N'DIAYE, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.
- OLANO, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- PAGOLA, R. M., 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- SAGARZAZU, T., 1994, "Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak", in Gomez, R. & Lakarra, J. A., (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJUren gehigarriak* 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 589-628.
- , 2003, *Portuko hizkera*, Hondarribiko Udalaren beka 2003. Argitaratzeaz.
- SALABERRI, P., 2000, "Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan", in Zuazo, K., (arg.), *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 223-262.
- , 2002, "Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores", in A. García-Sanz Marcote-gui (arg.), *La comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia*, Iruñerriko Mankomunitatea, Iruñea, 225-241.
- SALABURU, P., 1996, "Baztango hizkeraz hitz pare bat", in Izeta, M., *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernu, Iruñea, 15-22.
- Senpereko kantu zaharrak*, 2001, *Oxtikenekoak* Kultur Elkartea & Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ZUAZO, K., 1997, "Oiertzungo hizkeraren kokagunea", *FLV*, 76, 397-425.
- , 1998a, "Euskalkiak gaur", *FLV*, 78, 191-234.
- , 1998b, "Nafarroako euskal hizkerak", in Camino, I (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo, 1-22.
- , (arg.), 2000, *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- , 2003, *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- ZUBIRI, J. J. eta PERURENA, P., 1998, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- ZUBIRI, J. J., 2000, "Arano eta Goizuetako hizkera", in Zuazo, K., (arg.) 2000, *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 85-120.

Bortzerrietako XVIII. eta XIX. mendeetako testuak

- IDOATE, C. eta VILLANUEVA, J. J., 1981, "Unas ordenanzas de Vera en vascuence", *FLV*, 37, 275-281.
- PAGOLA, R. M. et alii, 1995, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Iparraldeko Goi-Nafarrera* (2. liburukia), Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo, 471-512.
- SATRUSTEGI, J. M., 1987, *Euskal Testu Zaharrak I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 78-79 (Etxalar) eta 247-261 (Lesaka).
- , 1997, "Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatutak", *FLV*, 74, 99-126.
- TREBIÑO, I., 2000, *Euskarazko testu zibilak administrazioan: 1855 eta 1856ko Etxalarko bando batzuk*, Eusko Jaurilaritza, HAAE-IVAP, Gasteiz, 415-420.

* Manuel Zubigarai Etxalarko erretoreak idatzitako predikua. 1878-1917 (bertako erretore izan) bitartean idatzia. **Pello Apezetxeak** utzitako 14 orriko eskuizkribua.

LABURPENA

Bigarren artikulu honetan, Bortzerrietako euskararen aditzaren morfologiaren, sintaxiaren eta lexikoaren zenbait alderdi deskribatzen ditugu. Azken batean, Bortzerrietako euskararen gramatika bat egin dugu, gramatika deskriptibo horretatik azterketa dialektologikora abiatzeko asmoz. Horretarako, izenburuak berak iradokitzen duenez, geografian barrena joan gara berdintasunak eta ezberdintasunak non sortzen diren ohartzeko. Halaber, tasun linguistiko horien arabera, Bortzerrietako barreneko nahiz kanpoko muga dialektalik behinenak non kokatzen diren erabakitzeko modua izan dugu. Ikuspegi diakronikoa ere baliatu dugu, hondarreko bi mendeotan gertatu diren aldaketak nora begira gertatu diren jabetzeko.

RESUMEN

En este segundo artículo, describimos los aspectos correspondientes a la morfología verbal, sintaxis y léxico del euskara de las Cinco Villas. En definitiva, realizamos una gramática del habla de las Cinco Villas, con la intención de hacer un análisis dialectológico, partiendo de la gramática descrita. Para este fin, tal y como sugiere el mismo título, viajamos por la geografía, para percartarnos de dónde se producen las convergencias y divergencias. Del mismo modo, según los rasgos lingüísticos analizados, podemos determinar dónde se sitúan los límites dialectales más relevantes de la zona. También utilizamos la visión diacrónica, para poder saber en qué dirección se han producido los cambios que se han dado en estos últimos dos siglos.

RÉSUMÉ

Nous décrivons dans ce second article les principaux traits de la morphologie verbale, de la syntaxe et du lexique du basque des Bortzerriak. Nous élaborerons en fait une grammaire du basque des Bortzerriak, dans le but de développer une étude dialectologique à partir de cette grammaire descriptive. Pour cela, comme le suggère le titre du présent travail lui-même, nous ferons une analyse géographique, afin de voir où se créent les uniformités et les différences. De même, en nous fondant sur ces traits linguistiques, nous pourrions déterminer la localisation des frontières dialectales au sein comme en dehors des Bortzerriak. Nous utiliserons également le point de vue diachronique, pour définir le sens dans lequel se sont effectués les changements survenus lors des deux derniers siècles.

ABSTRACT

In this second part we describe the main aspects of the morphology, syntax, and lexicon of the Bortzerrian Basque verbs. Our aim is to first make a descriptive grammar of Bortzerrian Basque to later move on to a dialectal analysis. For that, as the title itself states, the geography of the territory will be studied in order to find where similarities and differences are shaped/created. Likewise, we will be able to place the provisional inner and outer dialectal borders that these linguistic features force. We will also make use of the diachronic point of view in order to observe which path the changes of the last two centuries take.